ARRASATEKO UDALA
urtxintxa eskola
arrasate aretxabaleta INSTITUTUA
Mesedeetako Andra Maria IKASTETXEA

23. alea
2006

HEZKIDETZAN
Pausoz pauso

Paso a paso
En la COEDUCACIÓN






ZAPATUERO
GAZTENAHASTE

# Zer nolako pertsonak ditugu gure ondoan?



***Ikasle guztiak gelako pertsonen artean bilatu behar duzue hurrengo esaldiei baietz esango dizuen pertsona bat, eta bere izena idatzi. Izenak ezin dira errepikatu!!***

1. Zerbait polita esaten dizun pertsona . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
2. Bere senideekin etxeko lanak banatzen duen pertsona . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
3. Koadrila mistoa duen pertsona . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
4. Ezkerreko belarria zure tamaina berekoa izatea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
5. Bere gurasoekin sexualitateaz hitz egiten duena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
6. Negar egitea nesken gauza dela pentsatzen duena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
7. Musu bat ematen dizuna . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
8. Ikasle gazteagoei hasberriarena egin duen norbait . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
9. Emakumeen kontrako tratu tzarrak egiten dituztenak zoratuta daudela uste duena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
10. Jakin gabe nahi duen ala ez ipurdia ukitzea eraso bat ez dela pentsatzen duena
11. Txiste bat kontatzen dizuna . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
12. Ligatzeko kontuetan itxaron gabe, bere desirak adierazten duena . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

- ❒ Topatu duzu esaldi guztientzako baiezkoa eman dizun pertsona?
- ❒ Zelako inpresio ematen dizu orain ikaskide taldea?
- ❒ Estereotipo sexitak antzeman dira?



# INDARKERIA SEXISTA

## Taldeko lana

- Ze ulertzen duzue Indarkeri sexista entzuten duzuenean?

- Non ematen da Indarkeri sexista? Baiezkoa bada erantzuna idatzi adibide bat

Eskolan?

Lanean?

Kalean?

Etxean?

Zergatik sortzen dira egoera bortitz hauek?

# Indarkeriaren inguruko teoria desberdinak existitzen dira:



*Lau adibide motz planteatuko dizkizuegu:*

| | Ados | Ez ados | Zergatik |
|---|---|---|---|
| *1. Biktimaren probokazio edo zirikatzea: biktima berak zirikatzen gatazka egoera eta erasoa probokatzen du.* | | | |
| *2. Psikosoziala: Indarkeria, familia barruan belaunaldiz belaunaldi zabaltzen eta ikasten den komunikazio eredua.* | | | |
| *3. Erasotzailearen psikopatologia: badira gatazka egoeran izanda beste pertsonak errespetatzeko gai ez direnak.* | | | |
| *4. Ikuspegi feminista: harreman botereetan oinarritzen den eredu patriarkala mantentzen da, honek indarkeriaren erabilpena zilegi egiten du bai mutilak nesken kontrakoa zein mutilen artekoa, maskulinitatearen adierazpena bezala.* | | | |

## *Taldeka indarkeria sexistaren teoria egin:*

________________________________________

________________________________________

________________________________________

________________________________________

________________________________________

# MAITASUNEAN ERE ESTEREOTIPO ETA INDARKERI SEXISTA ISLADATZEN DA

*BIHOTZ MINEZ DAGOEN PERTSONA HONEN EGOERARI JARRAIPENA EMAIOZU*

Aupa! Aholku bat behar dut neska bati buruz.

Aspalditik ezagutzen dut, baina orain dela gutxi arte berarekin bakarrik hitz egin gabe nengoen. Nire ezagun eta lagun batzuekin ibilitakoa da lehenago eta horrek atzera botatzen nau. Badakit esaten dutenaren erdia gezurra izango dela, neskak utzi zituelako amorru-hitzak izango zirela, baina hala ere... zer pentsatuko du jendeak? Ni ere ibilia naiz beste bi neskekin aurreko urtean, baina mutiletan ezberdina da. Ala ez...

Gauza da atentzioa deitu didala. Ezin dut burutik kendu eta barre egiteko duen modu horrek zoratu egiten nau. Hitzik gabe ulertzen garela dirudi eta askotan berdin pentsatzen dugula iruditzen zait. Baina beldur naiz, berarentzako beste bat baino ez ote naizen izango eta ni ere utziko ez ote nauen.

Nola erabaki dezaket zer egin?